



EBko nekazaritza-uzteteako izurriteak ezaugarritzea 14/10/23

Gaur egun, Batzordea 2000/29/EE Zuzentarauaren eranskinetan zerrendatutako organismoen araudi-egoera berrikusten ari da. Nagusiki, berrikuste-lan hori jada EBn dauden organismoiei dagokie (kasu askotan, aspaldi daude araupetuta Europan).

Beraz, egoki iritzi zaio ebaluatzeari organismo horiek 2000/29/EE Zuzentarauaren menpe jarraitzea merezi duen edo, bidezkoa bada, landareak ugaritzeko materiala merkaturatzeko testuinguruan araupetu behar diren, edo araupetzetik kanpo gelditu behar duten.

Organismo horien araudi-egoeraren berrikuspenak ere bat egiten du azkenaldian EBko Araubide Fitosanitarioaren ebaluazioaren emaitzekin: sistema modernizatzearen alde egin du, horretarako arreta handiagoa jarriz arriskuaren prebentzioan eta arriskuaren fokalizazio hobean (lehenestea). Ebaluazio hori egiteko, beharrezkoa da izurriteen arriskuaren azterketa berri bat.

Azterketa horrek aintzat hartuko ditu organismo horiei buruzko azken ezagutza zientifikoak eta teknikoak eta bere baitan jasoko ditu nekazaritzan eta ingurumenean duten eraginari eta gaur egun EBko lurraldean duten banaketari buruzko datuak.

Testuinguru horretan, EFSAk ezaugarritu egin ditu **Patata usteltzea dakarren izurritea (*Ditylenhus destructor Thorne*), erremolatxa-hostoak kiribiltzea dakarren birusa eta *Pseudomonas syringae* pv. *Persicae*** eragindako izurritea. Ondorioen artean, EFSAk hau adierazi du:

Patata usteltzeari dagokionez:

- *D. destructor* noizean behin agertzen da EBko estatu kide (EK) gehienetan. Datuen arabera, EBko EKetako bi herenetan baino gehiagotan (Islandia eta Norvegia barne).
- Patata (ekonomikoki, nematodo horren landare ostalari garrantzitsua) EB osoan dago.
- Europako klima-baldintzak lagungarri dira *D. destructoren* bizitza-ziklorako.
- Nematodo horren garapen-aro guztietan, organismoa gai da negu osoa bizirauteko EB osoan.
- Hedatze handiagoa gertatzeko aukerak daude.

Erremolatxaren hostoak kiribiltzen dituen birusari dagokionez

- BLCVk ahalmena du EBko eremu handietan ezartzeko eta hedatzeko, eta kalte nabarmenak eragiteko azukre-erremolatxaren uztetan. Dena den, urte gutxitan gertatu dira BLCVren agerraldi esporadikoak, ziur asko bektoreen biztanleria handien ondorioz.
- Ez dirudi agerraldiak eragin handia izan dutenik, eta posible da birusa jada ez egotea nekazaritza-ekoizpeneko sistemetan.

Pseudomonas syringae pv. *Persicae*ri dagokionez

- Ez dago erabilera-estrategia ezarririk, nahiz eta gaixotasunaren eragina eta larritasuna murriztu egin daitezkeen tresnak, makinak eta materialak desinfektatuz, eta gaixotasunik gabeko eremuetako ereite-lanetarako materialak erabiliz.
- Infekzioak infektatutako landare-materialak eragin ditzake, eta ingurumenean hedatuta ere gerta daiteke.
- Europan ez da erregistratu izurriteen kontrol-agente biologiko edo kimikorik.
- Agerraldiak, noizean behin gertatzen diren arren, oro har larriak dira. Gainera, soro osoak galtzea eragin dezakete.

Patata usteltzea eragiten duen izurritearen kategorizazioa (<http://www.efsa.europa.eu/en/efsajournal/doc/3834.pdf>)

Erremolatxaren hostoak kiribiltzea eragiten duen birusaren izurritearen kategorizazioa (<http://www.efsa.europa.eu/en/efsajournal/doc/3847.pdf>)

Pseudomonas syringae pv. *persicae*ren izurritearen kategorizazioa (<http://www.efsa.europa.eu/en/efsajournal/doc/3855.pdf>)

